



Euskal gramatika xxi. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak

Pablo Albizu eta Beatriz Fernández (arg.)

3. Euskara (lingua) - gramatika.

196.728	
227.634	DATA 28-2-05
809.169-5	RECIBO
809.169-5	Ling.
EUS	



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO

Arabako
Foru Aldundia

Kultura, Gazteria
eta Kirol Saila



Diputación
Foral de Alava

Departamento de Cultura,
Juventud y Deportes

ARGITARATZAILEA / EDITA
Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava
Kultura, Gazteria eta Kirol Saila - Departamento de Cultura, Juventud y Deportes

INPRIMATZAILEA / IMPRIME
Imprenta de la Diputación Foral de Álava

FOTOKONPOSAKETA / FOTOCOMPOSICIÓN
Arriaga, S.L.

I.S.B.N.
84-7821-592-1

L.G. / D.L.
VI-352-04

***Ari* progresiboaz: euskararen kasu markak**

Itziar Laka
Euskal Herriko Unibertsitatea

O. Ataria*

Lan honetan, euskal gramatikaren egiturari begiratzeak giza hizkuntzaren egitura orokorra hobeto ulertzen lagun diezagukeela erakutsi nahi nizueke. Bereziki, euskal gramatikak ageri dituen zenbait berezitasunetatik, giza hizkuntzetan aurkitu ohi ditugun gertakariak azaltzeko laguntza aurki genezakeela argudiatu nahi nuke. Hauxe da, azken batean, artikulu bilduma honetan aurkitzen diren lanen helburua: ez bakarrik euskararen egitura gramatikala hobeto ezagutzea, baizik eta helburu honetatik abiaturik, haratago jotzea, giza hizkuntzaren nondik norakoak hobeto ulertu ahal izateko, hots, gizaki guztiona den *gramatika unibertsala* edo *hizkuntz gaitasuna* zertan den hobeto ezagutzeko.¹ Liburu honetan gure lanak aurkezten ditugun hizkuntzalariok, Pablo Albizu eta Beatriz Fernández irakasleen gonbita jaso genuen, *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak* izenburu zeraman irakastaldi sorta emateko, baita irakastaldi horien ondorioz artikulu bilduma honetan parte hartzeko. Gai nagusi horri jarraiki, arazo zahar bat ekarriko dut plazara, eta azterbide berri batzuen bitartez arazo horri eskain lekiokoen erantzun bat plazaratu nahi nuke.

Arazo zaharra, hizkuntza ergatiboetan eman ohi den gertakari bat dugu: aspektuak eragindako *ergatibotasunaren zatiketa*, alegia. Berehalaxe azalduko dut ergatibotasuna zer den, baita aspektu aldaketek nola zatitzen duten eredu ergatiboa. Azterbideak, bat baino gehiago ditugu: batetik, euskal gramatikaren esparruan Hualde & Ortiz de Urbinak (1987) proposaturiko *ari* egituren azalpena abiapuntu hartuko dugu, eta bestetik, hizkuntzalaritza orokorraren esparruan, Demirdache & Uribe-Etxebarriak (1997) eskaintzen diguten denbora harremanen sintaxiari buruzko eredu orokorra, baita progresiboari buruz egiten duten proposamena.² Aipatutako lanotan egiten diren

* Eskerrak eman nahi dizkiot Mari Jose Ezeizabarrenari, *ari* progresiboaren aldaera iragankorren garrantziaz jabetzeko aukera eman izanagatik. Lan hau, Eusko Jaurlaritzaren PI-1999-18, Euskal Herriko Unibertsitatearen 9/UPV00027.130-13587/2001, eta European Science Foundation-en BFF2002-10379-E ikerkuntza laguntzei esker burutu ahal izan da.

¹ Hizkuntz gaitasunaren unibertsaltasunaz, ikus bitez, beste askoren artean, Artiagoitia (2001), euskaraz egindako aurkezpen baterako, Chomsky (1986), aurkezpen klasiko baterako, eta Pinker (1994) dibulgazio mailako aurkezpen bikain baterako.

² Honez gain, kontuan izango ditugu ere, Mateu & Amadas-ek (1999) progresiboaren egiturari buruz egindako proposamena, guri hemen dagokigunez antzekoa dena, eta azken lan bi hauen oinarrian datzan Bybee eta bestek (1994) egindako bilera tipologikoa, hainbat hizkuntzatak datuak jasotzen dituen.

proposamenek euskal progresiboaren izaera iragangaitza azaltzen digute. Behin lan hauetan egiten zaizkigun proposamenak aztertu eta onartuz gero, zertxobait haratago joan gaitezke azalbidean: batetik, euskal progresibotik abiatuta, gainerako hainbat hizkuntzatan ematen diren gertakariak ulertzeko giltzaren jabe egin gaitezkeela erakutsi nahi nuke; bestetik, egungo euskararen aurkitzen dugun *ari* progresiboaren beste erabilera batzuk aztertuko ditut, eta horientzat azalbide bat eskainiko. Bukatzeko, *ari* progresiboaren azterketa honen ondoren, euskararen kasu marken azalpenean den arazo zahar bati eman diezaioketuz azalbide berri bat aurkeztu nahi nuke. Baina goazen arazoz arazo, urratsez urrats.

1. Zertan da *ari* progresiboa berezi?

Euskaraz, gainerako hizkuntza askotan bezala, kasu morfologiaren bitartez ulertzen eta adierazten ditugu perpausean ematen diren hainbat esanahi harreman. Bestela esanda, perpaus batean nork zer egiten duen ulertu edo adierazteko, kasu markak azaltzen zaizkigu:

(1) Emakumeak gizona laztantzen du.

Euskaldun batek, nola daki perpaus honetan laztantzailea eta laztandutakoa zein diren? Erantzunak ez dirudi oso zaila: *-k* marka daraman osagaia *laztan egiten duena* da, eta markarik ez daraman osagaia *laztandutakoa*. Beste modu batera esanda, *nork* kasuan ageri den osagaia *egilea* da, eta *nor* kasuan ageri den osagaia *gaia*. *Egile* eta *gai* deitura hauek erabiltzen ditugu hizkuntzalaritzan, ekintza egiten duena eta ekintza jasaten duena adierazteko. *Egile* eta *gai*, *laztandu* bezalako aditz iragankorrek banatzen dituzten *rol tematikoak* dira.³ Honela, bada, euskal perpaus guztiak (1) bezalakoxeak balira, errazki azal genezake kasu markak euskaraz zer diren: *egile* eta *gai* bezalako rol tematikoen ikurrak, alegia.⁴ Baina hizkuntza kontuak ez ohi dira nahi genukeen bezain korapilogabeak. Goiko (1) perpausari *ari* hitza sartzen badiogu, bestelako aldaketa batzuk gertatzen direla erakusten digu (2) adibideak:

(2) Emakumea gizona laztantzen ari da.

Oraingoan, *nork* kasua desagertu da, beraz, nola dakigu *nork* laztantzen duen *nor*? (2) perpausa, *zer gertatu da?* galderari erantzuteko erabiliko bagenu, hau da, galdera horren erantzun bezala *emakumea gizona laztantzen ari dela* erantzungo bagenu, orduan laztantzailea *emakumea* izango litzateke, eta *gizona* laztandua. Ohar bedi baina, (2) adibideko kasuen banaketa ez datorrela bat gorago egin berri dugun hipotesiarekin. Hau da, (2) ikusita, ez dirudi egia euskaraz *egile* batekin topo egiten dugun guztietan *nork* kasuarekin markatzen dugunik; izan ere, (2) perpaus horretan *emakumea* da laztan egilea, eta hala ere, ez zaio *-k* markarik atxikitzen. Hizkuntzalari asko dira *progresiboaren ezaugarri* honekin konturatu direnak; adibidez, Holmer (1999: 191): “An Agent of a verb such as *edan* ‘to drink’ may not appear in ABS [NOR kasua] unless accompanied by one of

³ Hizkuntzalaritzako kontzeptuak argitzeko, ikus bedi Artiagoitia (2001) sintaxi liburu bikaina.

⁴ Aurrerago ikusiko dugunez, hauxe zen hain zuzen ere, Levin hizkuntzalariak (1983) euskararako egiten zuen proposamena.

a set of auxiliaries, such as *ari* PROGRESSIVE.⁵ *Ari* progresiboak hizkuntzalari askoren artea jaso izan du, hain zuzen ere Holmerren hitzok bikainki laburbiltzen duten ezaugarri hori dela eta; adibidez, Postal-en (1977) lanean, *ari* progresiboa antipasibo bat dela argudiatzen zen, eta ikuspuntu horrek bizirik dirau oraindik beste hizkuntzalari batzuen lanetan, berrienetariko bat aipatzearen, Alonso-Cortés (2002).⁶ *Ari* progresiboan, kasu erdua nabarmenki aldatzen da, (1) eta (2) perpausen arteko aldeak erakusten digun legez: itxuraz behintzat, *egilea* den osagai batek *nor* kasua hartzen du. Hala ere, euskaldunek euren eguneroko bizitzarekin aurrera egiten dute, bai (1) eta bai (2) bezalako perpausak inolako arazorik gabe ulertu eta esanaz. Hizkuntzalarion lana, hori nola gertatzen den azaltzea da.

2. *Ari* aditza da: Hualde & Ortiz de Urbina (1987)

Azal dezagun bada, zer den (1) eta (2) adibideen arteko aldea. Ikus dezagun zer den euskara dakien batek dakiena, jakintza horretaz ohartzen ez bada ere. *Ari* duten egitura hauek azaltzeko ideia nagusia, Hualde eta Ortiz de Urbina hizkuntzalariek eskaini ziguten 1987an: *ari* aditza da eta beraz, *ari* daramaten perpausetan aditz bi daude: *ari* bera, eta ekintza edo gertaera adierazten duen *bigarren* aditza. Aditzok, bada, perpaus bana eratzen dute: *ari* aditzak perpaus bat, eta *bigarren* aditzak bestea. Ondorioz, *ari* bitartez eraturako perpausak perpaus konplexuak dira.⁷ Beraz, aurreko (2) adibidera itzuliaz, perpaus bi genituzke hor: batetik, [*emakumea zerbaitetan ari da*], eta bestetik, [*zerbaitetan horren lekuan perpaus jokatugabe bat aurkitzen dugu*, [*gizona laztantzen*]. Ondoko adibideak erakusten digu, xehetasun batzuk gora-behera, perpaus konplexu honen egitura:

(3) [_p Emakumea_i [_p PRO_i gizona laztantzen] ari da]

Egituraren itxuraketa honetan, PRO elementua agertzen da: menpeko perpausaren subjektua isila dela adierazten digu honek. PRO eta *emakumea* osagaiek daramaten *i* azpiindizeak, menpeko subjektu isil horren esanahiak aurrekoaren berbera izan behar duela adierazten digu –bestela esanda, perpaus bien subjektuek erreferentziakide izan behar dutela.⁸ Hauxe dugu bada, ontzat hartzen dudan lehenengo proposamena: *ari* hitza, (2) bezalako perpausetan, aditza da eta, beraz, (2) bezalako perpausaren barnean beste menpeko perpaus bat daramate, (3) adibideko egiturak erakusten duen moduan.

⁵ “*Edan* bezalako aditz baten *Egilea* ezin daiteke ABSn [NOR kasuan] agertu, *ari* PROGRESIBOA bezalako launtzaile talde batekin batera ez bada.”

⁶ Ez naiz hemen antipasiboa zer den azaltzera abiatuko: jakin-mina duen irakurleari Dixon-en (1994) liburura jo dezala gomendatuko nioke. Euskarazko *ari* progresiboa antipasiboa ez delako ebidentzia ukaezina aurkezten dute, nire iritziz, hurrengo aipatuko dugun Hualde & Ortiz de Urbinaen (1987) lanak. Irakurleak horra jo dezake antipasiboaren aurkako ebidentziaren berri izatekotan.

⁷ Levin-en (1983: 353) lanean dagoeneko proposatzen da *ari* aditza dela eta *ari* daramaten perpausak konplexuak direla: “Another type of construction involving a non-finite clausal complement is the *ari izan* construction. This construction is found with the verbs *ari* (used to express the progressive), *hasi* to begin, *jardun* to be occupied with. These verbs select non-finite clausal complements which have the verb in the *-izen* form.” Hala ere, Levin-ek ontzat hartzen du egitura hori dela, zehaztasunetan sartu gabe. Hualde & Ortiz de Urbinaen (1987) lanak, ebidentzia ugari eta argudio zehatzak eskaintzen dizkigu.

⁸ Ikus bedi liburu honetan San Martin-en (2002) lana, PRO kategoria honen nondik norakoak argiro azaltzen dituena.

3. Euskararen kasu markak: ergatibotasuna

Aurrera jo baino lehen, itzul gaitezen lehen ibili dugun harira: euskal gramatikaren ardatzean ageri zaizkigun *nor* eta *nork* kasuen nondik norakoetara, alegia. Oraingoan, bereziki, euskarak ageri duen kasu marken banaketak gainerako hizkuntzekin dituen antzekotasun eta desantzekotasunak aipatu nahi nituzke. Dakigunez, munduko hizkuntzetan arrunta da aditzaren esanahiaren partaide diren osagaiak marka morfologiko batzuen bitartez bereiztea. Marka morfologiko arruntenak *kasu markak* ditugu, hau da, osagai nominalen itxura aldatzen duten morfemak. Hauezag gain, hizkuntzek *komunztadurak*, edo aditz morfologian azaltzen diren morfemak erabili ohi dituzte aditzaren partaideak bereizteko. Euskarak, marka mota biak erabiltzen ditu perpaus jokatueta, eta kasu markak bakarrik perpaus jokatugabeetan (4a) eta (4b) adibideetan ikus dezakegunez:

- (4) a. *Zuk gu ikusi gaituzu.*
 b. [*Zuk gu ikustea*] ezinezkoa da.

(4a) adibideak erakusten digunez, perpaus jokatueta, kasu morfologiaz gaindi, aditz komunztadurak marka bereziak erabiltzen ditu, marka mota bat aditzaren hasieran *nor* kasuko osagaiak markatzeko, eta beste marka mota bat, aditzaren bukaeran, *nork* motako argumentuak markatzeko.⁹ Giza hizkuntzetan, aditzaren partaideak markatzen direnean, partaide horiek egiten duten (esana-hiko) lana adierazteko da, gorago ikusi dugunez, (1) adibidearen kasuan. Marka morfologiko horiek, perpausaren esanahia antzematen laguntzen digute. Esaterako, gaztelaniaz, euskaraz bezala, itxura ezberdina hartzen dute aditzaren partaideek, eta forma horien bitartez ulertzen edo adierazten dugu zein den *egilea* eta zein *gaia*:

- (5) a. *La mujer* ha acariciado *al hombre*.
 b. *Ella lo* ha acariciado.

Gaztelaniaz, aditzaren partaide ezberdinek marka ezberdinak jasotzen dituzte, (5a) perpausoko osagai bien arteko aldeak, eta (5b) perpausoko izenordainen forma ezberdinek erakusten duten legez. Bestetik, jakina denez, hizkuntza honetan aditzaren komunztadurak partaide bat markatzen du bakarrik –*egilea* adibideotan–, honela partaideak bereiziaz.¹⁰ Zentzu batean, bada, kasu markatzea, esanahia argitzeko edo zehazteko erabiltzen du hizkuntzak. Alabaina, markatze honek zehazki nola jotkatzen duen aztertzen dugunean, berehala ohartzen gara arazo bitaz: (a) kasu marka hauek ez dira zuzen-zuzenean *egile* edo *gai* betebeharrak semantikoen ikurrak, edo bestela esanda *esanahiaren* eta *formaren* arteko harremana ez da zuzena, banan-banakoa; eta (b) giza hizkuntzek ez dute berdin jotkatzen *esanahia* eta *forma* elkarlotzean. Izan ere, giza hizkuntzak talde nagusi bitan banatzen dira erabiltzen duten markatze ereduaren arabera: talde *ergatiboa*, eta talde *nominatiboa*.

⁹ Dakigunez, aditz morfologian paralelotasun hau hautsi egiten da baldintza batzuk betetzen direnean. Adibidez, *nuen* edo *genituen* bezalako formetan, hasierako morfemak *nork* kasua daraman osagaiarekin egiten du komunztadura. Arazo hau jorratu duten lanak asko dira azkeneko urteotan. Ikus bitez, adibidez, Laka (1988 1995), Albizu (1995), Fernández (1997), Albizu & Eguren (2000), eta Fernández & Albizu (2000).


¹⁰ Markatze sistemek maiz anbiguotasunak sortzen dituzte. Adibidez: (i) *emakumeak gizonak ikusi ditu* edota (ii) *así crea el lenguaje la mente* perpausetan, testuingururik gabe ezin daiteke jakin *egilea* eta *gaia* zein diren. Bestela esan, ezin jakin *nork* ikusi duen nor (i) edo zerk sortzen duen zer (ii). Giza hizkuntzan sarritan aurkitzen ditugu honelako adibideak, ziurrenik markatze ereduaren ekonomia gogorren ondorio direnak.

(a) *Kasu markak ezin daitezke egile edo gai bezalako esanahiekin zuzenean identifikatu*: gaztelaniaz, beste hainbat hizkuntzetan bezala, batetik forma berà erabiliaz marka daitezke *egile* bat eta *gai* bat, (6a) eta (6b) adibideek erakusten diguten bezala; bestetik, *egileak* forma biren bitartez marka daitezke (6a) eta (6b) adibideen erkatzean ikus daitekeenez:

- (6) a. *El gato ha comido al ratón.*
b. *El ratón ha sido comido por el gato.*

(6a) adibidean, *el gato* jate ekintzaren *egilea* da; ez darama ageriko kasu markarik eta aditzarekin komuntadura egiten du; marka honi, ohitura den bezala, *nominatiboa* dei diezaiokegu. Baina (6b) adibidean, *el ratón* jate ekintzaren *gaia* edo *jasaila* da marka gabe agertzen dena eta aditzarekin komuntadura egiten duena, *nominatiboa* alegia. Beraz, batean (6a) *egilea* eta bestean *gaia* (6b) agertzen zaizkigu marka bera harturik, *nominatiboaren* marka. Hau da, esanahi ezberdin bik-*edo rol tematiko ezberdin bik-* forma bera aurkitzen dute hizkuntzan. Honezaz gain, (6a) eta (6b) adibideetan, *el gato* *egilea* forma ezberdin biren bitartez markaturik ageri da. *Nominatibo* marka, bai *egileei* eta bai *gaiei* ere ezar dakieke, eta *egileek* bitariko markak eraman ditzakete. Nahiz eta kasu markek aditzaren partaideak zeintzuk eta nolakoak diren ulertu eta adierazteko erabiltzen ditugun, kasu marka hauek ez dira partaidetza semantikoa adierazten duten elementuak, *egile* edo *gai* zuzenean dioten ikurrak, alegia.¹¹ Esanahiaren eta hizkuntz formaren arteko harremanak ez dirudi biunibokoa, banan-banakoa, baizik eta (7) diagraman ageri zaiguna bezalakoa.

(7)



(b) *Esanahiaren eta formaren arteko harreman hau eratzeko modu nagusi bi aurkitzen ditugu: eredu nominatiboa eta eredu ergatiboa.*¹² Gaztelaniaz, lehenengoa erabiltzen du, eta euskarak bigarrena; beraz hizkuntza biotako adibideak erabil ditzakegu bereizkuntza nagusi hau azaltzeko:

- (8) a. *emakumeak emakumea* ikusi du
b. *emakumea* hil da
c. *ella* la ha visto
d. *ella* ha muerto

¹¹ Honengatik deitzen zaio markatze honi *Egiturazko Kasua*, hain zuzen ere rol tematikoen markatze zuzena ez delako. Rol tematikoen markatze zuzena den *Kasuari*, *Berezko Kasua* deritzo –Ortiz de Urbina (1988a), Artiagoitia (2001), Chomsky (1986), Bittner & Hale (1996), Fernández (1997), beste askoren artean.


¹² Talde bi hauen barruan, taldekatze gehiago egin daitezke; honela, adibidez, hizkuntza ergatiboetan, ergatibotasun morfologikoa eta ergatibotasun sintaktikoa berezi ohi dira, edota *S-zatituak* deritzenak. Jakin-mina duen irakurleak, Dixon (1994), Bittner & Hale (1996) eta Manning (1996) lanetara jo dezake argibide bila.

Hizkuntza bakoitzak egiten duen taldekatzea garbiago ikus dezagun, letra etzanetan eta bata bestearen azpian jarri ditut forma beraren bitartez markatzen diren osagaiak. Halaber, gaztelaniaren kasurako izenordainak aukeratu ditut, forma aldaketa nabarmenago bat jasaten dutelako. Euskararen kasuan, perpaus iragankorrean (8a), *gaiak* edota ikuste ekintzaren jasaileak ageri duen marka berbera ageri du perpaus iragangaitzeko (8b) *gaiak* –*hil* aditzak hartzen duen partaide bakar hori gaia dela erraz uler daiteke, hiltzea gertatzen zaigun zerbait delako, eta ez geuk egiten dugun ezer. Marka horri, euskal gramatikan, *nor* kasua deritzogu. Gaztelaniak bestelako aukera bat egiten du: perpaus iragankorrean (8c) *egileak* erakusten duen nominatibo markatze mota erakusten du perpaus iragangaitzeko (8d) *gaiak*. Euskarak egiten duen aukera, munduko beste hizkuntza askok egiten dute; hizkuntza horiei, *hizkuntza ergatiboak* deritze, eta hizkuntza hauek agertzen duten ezaugarri honi *ergatibotasuna* deritzo. Gaztelaniak egiten duen aukerari, baita munduko beste hizkuntza askok egiten dutenari ere, *nominatibotasuna* (edo *akusatibotasuna*) deritzo, eta ezaugarri hori erakusten duten hizkuntzak hizkuntza *nominatiboak* direla esan ohi da. Izenak ikasten dihardugularik, jakin behar dugu baita ere, euskaraz *nor* deitzen dugun kasu markari *absolutiboa* deitzen zaiola hizkuntzalaritzan, eta *nork* deitzen dugun kasuari *ergatiboa*. Hortik dator *hizkuntza ergatiboen* deitura. Bakarrik ez gaudela ikusi ahal izateko, (9), (10) eta (11) adibideetan, munduko beste hizkuntza ergatibo batzuen adibideak ikus ditzakegu:¹³

- (9) a. payi yara paninyu. *Dyrbal (Australia)*
 DET gizon etorri.zen
Gizona etorri zen.
 b. palan jukumpil pangkul yaranku buran.
 DET emakume DET.ERG gizon.ERG ikusi.zuen
Gizonak emakumea ikusi zuen.
- (10) a. arnaq yurartuq. *Yup ik (Artiko ingurua)*
 emakume dantzatzen.da
Emakumeak dantza egiten du.
 b. arna-up tangrraa arnaq.
 emakume-ERG ikusi.du emakume
Emakumeak emakumea ikusi du.
- (11) a. na e alu a Sione ki he ako. *Tongera (Polinesia)*
 IRAG joan ABS Jon P DET eskola
Jon eskolara joan zen.
 b. na e fana i e Sione a Mele.
 IRAG jo ERG Jon ABS Miren
Jonek Miren jo zuen.

Adibideotan, aditzaren partaideek agertzen dituzten marken banaketa euskararen antzekoa da. Hizkuntza ergatibo eta nominatiboen artean dagoen aldea, eskematikoki, ondoko hau dugu:

¹³ Euskara eta ergatibotasunaren inguruan, ikus bitez Ortiz de Urbina (1988 1989), Fernández (1997), Laka (1995 2000), Holmer (1999), beste askoren artean. Ergatibotasunak hizkuntzalaritza sortzailean jaso dituen azterketen aurkezpen baterako, ikus Laka (2002). Munduko hizkuntza ergatiboei buruzko monografiarik zabalenerako, Dixon (1994), eta ergatibotasunaren azalpenen bilduma orokorretarako, Bittner & Hale (1996), Manning (1996).



Irudi honetan ikusten dugunez, giza hizkuntzek, oro har, marka nagusi bi erabiltzen dituzte aditzaren partaideak bereizteko. Marka horiek nola banatzen diren aztertzean, hizkuntza talde nagusi bi aurkitzen ditugu: ezkerretara, *ergatiboa* deritzen hizkuntzen eredia ikus dezakegu, perpaus iragangaitzen partaidea eta perpaus iragankorren gaia era berean markatzen dituen (absolutibo kasua erabiliz), eta eskumatara, *nominatiboa* deritzen hizkuntzen eredia, perpaus iragangaitzen partaidea eta perpaus iragankorretako egilea era berean markatzen dituen (nominatibo kasua erabiliz).

4. Ergatibotasuna eta aspektua: ergatibotasun zatitua

Hizkuntza ergatibo askotan, aditzaren aspektua aldatzen denean, kasu markatzean ere aldaketak gertatu ohi dira. Kasu morfologian azaltzen den aldaketa honi *ergatibotasun zatitua* deitu ohi zaio, eredu ergatibotik eredu nominatiborako aldaketa bat eman delako hipotesia onartuz (Dixon 1994). Aspektuak baldintzaturiko ergatibotasun zatituaren adibideen artean, hindia dugu:

- (13) a. Raam-ne roTii khaayii thii.
Raam-ERG ogia.FEM jan.FEM zen.FEM
Raamek ogia jan zuen.
- b. Raam roTii khaataa thaa.
Raam ogia jaten.MASC zen.MASC
Raamek ogia jaten zuen.

Perpaus hauen artean dauden ezberdintasunak ondokoak ditugu: (13a) perpausaren aspektua *perfektiboa* da, hots, ekintza burutu bat aurkezten digu; (13b) perpausaren, ordea, aspektua *ez-burutua* edo *ez-perfektiboa* dugu, lehenaldikoa izanagatik ere ez baita burutu. Aspektuaren aldaketa honekin loturik, aditzaren partaideen markatzean aldaketak ikusten ditugu: (13a) perpausaren, egileak ergatibo kasua hartzen du, *ne* atzikiaren bitartez, eta ekintzaren gaia markatu gabe uzten da, absolutiboa adieraziz. Aditzaren morfologiari begiratzen diogunean, aditz nagusiak eta laguntzaileak *femenino* marka daramatela ikusten dugu, hindiz femeninoa den *roTii* izenarekin komuntadura eginaz. Ostera, (13b) perpausaren, egileak ez du ergatibo markarik hartzen, eta aditzaren genero komuntadura *Raam* izen maskulinoarekin doa oraingoan. hindiaren gertakari hau deskribatzean esan ohi da –Mahajan (1990), Dixon (1994)–, (13a) perpausak eredu ergatiboari jarraitzen diola, baina (13b) perpausak eredu nominatiboari jarraitzen diola, hots, (13b) perpausaren marka

gabe agertzen diren partaideen kasuak nominatiboa eta akusatiboa direla, alegia: *Raam* osagaiak nominatiboa jasoko luke, eta *roTii* osagaiak akusatiboa. Ohar bedi ez dudala kasu izenik jarri adibideen glosetan, ageriko markarik agertzen ez den lekuan, eta horregatik, *ne* atzizkia agertzen denean bakarrik adierazten dut hor *ergatiboaren* marka daukagula. Izan ere, lantxo honetan zalan-tzan jarri nahi nuke (13b) perpausean *nominatibo/akusatibo* eredu baten aurrean gaudenik. Morfologiak ageriko markarik eskaintzen ez digun artean, (13b) adibidean absolutibo bi daudela esan dezakegu: bata *Raam* osagaiarena, eta bestea *roTii* osagaiarena. Ene iritziz (13b) perpausean gertatu dena ulertzeko, eta lantxo honetan zabaldu nahi dudan proposamena ikusteko, euskarazko progresiboak lagun diezaguke:

- (14) a. Emakumeak gizona ikusi du.
 b. Emakumeak gizona ikusten du.
 c. Emakumea gizona ikusten ari da.

Adibide hauetan, aspektu aldaketak ere ikusten ditugu: (14a) perpausean, aspektu burutua edo *perfektiboa* dugu, (14b) perpausean aspektu ez-burutua edo ez-perfektiboa, eta azkenik, (14c) perpausean, *progresiboa* deritzon aspektua. (14a,b) perpausek *ergatiboa* eta absolutiboa banatzen diete *egileari* eta *gaiari*, hizkuntza *ergatiboetan* perpaus iragankorretan gertatu ohi den legez, baina zer gertatzen da (14c) perpausean? *Ergatibotasun* zatitua ematen al da euskaraz, hindiz bezala? Galdera honi erantzuteko, gogora dezagun Hualde & Ortiz de Urbinaren (1987) proposamena. (14c) perpaus konplexua da, bertan aditz bi daude, *ari* eta *ikusi*, eta aditz bakoitzak perpaus bat eratzen du, *ikusi* aditzaren perpausa *ari* aditzaren perpausaren osagaia delarik:

- (15) [_p Emakumea [_p PRO gizona ikusten] ari da.

Egitura honetan, *gizona* osagaiak absolutibo kasua hartzen du, *ikusi* aditzaren perpausean, eta *emakumea* osagaiak ere absolutiboa hartzen du, *ari* aditzaren perpausean.¹⁴ Hots, Hualde eta Ortiz de Urbina zuzen badabilta, uste dudan legez, (15), (2) edo (3) bezalako *ari* progresiboetan absolutibo kasu bi azaltzen zaizkigu, bakoitza perpaus batekoa. Hualdek eta Ortiz de Urbinak aurkeztzen diguten proposamenaren egokitasuna areago zuztartzeko, nire iritziz, mendebaldeko euskaltietan *progresiboa* egiteko erabiltzen diren egiturak kontuan hartzen baditugu:¹⁵

- (16) a. Emakumea gizona laztantzen dabil.
 b. Emakumea liburua irakurtzen dago.

¹⁴ Hemen aurkeztzen dena, Kasuak egituraren zein lekutan eta nola ezarri zehazten duten hipotesi ezberdinekin batera daiteke, eta ez dut beraz, proposamen bat ala beste hobetsiko oraingoz. Adostasuna bada, eta horrekin nahikoa da nire helburuetarako, euskararen kasuan, perpaus iragangaitz ez-akusatiboetan ABS ezartzen zaiola partaide bakarri, eta perpaus iragankorren kasuan ABS ezartzen zaiola aditzaren gaiari. Ezarketa hori zehazki nola gertatzen den ez dio hemen aurkeztzen diodanari eragiten. Euskararen kasu ezarketari buruzko hainbat proposamen ezberdinetarako, ikus bitez Levin (1983), Ortiz de Urbina (1988b 1989), Laka (1993 2000), Fernández (1997), Holmer (1999), Ormazabal (2000), beste askoren artean.

¹⁵ Ez ditut lan honetan bilduko, Hualdek eta Ortiz de Urbinak beren 1987ko artikuluan aurkeztzen duten hainbat froga eta argudio zehatz; irakurleak bertara jo dezake horien bila. Mendebaldeko progresiboeci dagokienez, 3. oharrean aipatzen dituzte, *ari* bizkaieraz erabiltzen ez dela azaltzean, baina euren egitura edo *ari* aditzaren erabilerarekin duten antzekotasuna aipatu gabe.

Mendebaldeko progresibo hauek arreta gutxiago jaso dute euskalaritzan, agian arras gardenki ikusten dugulako perpaus bik osatuak direla: batetik *ibili* edo *egon* aditzen perpaus iragangaitza, eta bestetik *laztandu*, *irakurri* edo dena delako aditzen perpaus jokatugabeak:

- (17) a. [_p Emakumea [_p PRO gizona laztantzen] dabil.
 b. [_p Emakumea [_p PRO liburua irakurtzen] dago.

(17a,b) perpausetan, *ibili* eta *egon* aditz iragangaitzak izaki, aditz horien partaidea absolutiboa edo nor kasuaz markaturik ageri da, ohi duen legez. Perpaus hauetan, lekua adierazten duen osagai arrunt baten ordeaz, perpaus jokatugabe bat ageri zaigu. Hau da, *emakumea Bilbon dabil* edo *emakumea Bilbon dago* perpausen egitura bera daukate goikoeak, lekuzko osagaia izan ezik. (17)-ko perpausetan, ekintza adierazten duen perpaus jokatugabea da *Bilbon* osagaiaren kidea. Beraz, mendebaldeko progresibo hauen egitura bera dauka *ari* progresiboak, (17) eta (13) edo (15) erkatzean errazki ikus daitekeenez. Orain, bada, hindiko (13) adibidera itzultzen bagara, hizkuntza honetan ere antzeko zerbait gertatzen dela iradoki nahi dut: perpaus iragankor arruntetan ergatibo eta absolutibo markekin bereizten dira aditzaren *egilea* eta *gaia* (13a), baina aspektua ez-perfektiboa denean, perpaus konplexu baten aurrean gaude, perpaus bakoitzeko absolutibo marka bat dagoelarik, (18) egituran itxuratzen den antzera:

- (18) [_p Raam_i [_p PRO_i roTii khaataa] thaa]
 Raam.MASK PRO ogi.FEM jan.PART_{MASK} da.MASK
Raamek ogia jaten du.

Egitura honen bitartez, komunztadura gertakariak azal ditzakegu: hindian, absolutiboarekiko komunztadura agertzen dute aditz partizipioak eta inflexioak. Honela, perpaus perfektiboetan, *roTii* osagaiarekiko komunztadura aurkitzen dugu (13a). Ostera, perpaus ez-perfektiboan, perpaus nagusiaren inflexioak *Raamek* komunztadura egingo du, hori baita perpaus nagusiko absolutibo bakarra.¹⁶ Hindian aurkitzen dugun egitura, (18) alegia, (3) adibidean euskararako geneukan berbera da, baina oraingoan ez da aspektu progresibo batean agertzen, baizik eta ez-perfektiboa den aspektuan. Dixon (1994), ergatibotasunari buruz egin den bilduma tipologiko zabalenean, eredu unibertsal bat aurkitzen du aspektuak eragindako ergatibotasun zatituan: zatiketa gertatzen bada, beti aspektu perfektiboak erakusten du eredu ergatiboa, eta aspektu ez-perfektiboak eredu nominatiboa. Hau da, ez da alderantzizko kasurik aurkitzen: “But if a split is conditioned by tense or aspect, the ergative marking is *always* found either in past tense or in perfective aspect” (Dixon 1994: 99). Ez dago argi zergatik kasu ereduaren zatiketak nahitaez jarraitu behar dion eredu honi, egiazki ergatibotasunetik nominatibotasunerako aldaketa bat egon bada. Ostera, hemen aurkezten dugun azalbidean, Dixonek aurkezten digun eredu hau espero izatekoa da, ondoren ikusiko dugunez, ez-perfektiboak eta progresiboak baitira egitura lokatiboetan gauzatu ohi diren aspektuak.

¹⁶ Honetan ere, euskal progresiboekiko paralelotasuna aurkitzen dugu, jakina baita progresiboetan perpaus nagusiko absolutiboarekiko komunztadura aurkitzen dugula bakarrik, eta ez menpeko perpauseko absolutiboarekikoa.

5. Progresiboaren egituraz

Orain arte aztertu ditugun euskal progresiboek, bai ekialdekoa den *ari* progresiboak eta bai mendebaldeko *ibili/egon* aditzekin eratzen diren progresiboek ere, egitura bera daukate: perpaus konplexuak dira, perpaus nagusia iragangaitza da, eta menpeko perpausak leku/moduzko osagai batek betetzen duen lan bera egiten du, sintaxian bederen:

- (19) a. Emakumea [*lanean*] ari da.
 b. Emakumea [*gizona laztantzen*] ari da.
 c. Emakumea [*lanean*] dabil.
 d. Emakumea [*gizona laztantzen*] dabil.

Kasualitate hutsa al da (19a,b) eta (19c,d) arteko paralelotasuna? Aspektu/denbora harremanak gramatikan nola gauzatzen diren ikertzen dutenen erantzuna ezezkoa da. Izan ere, orain ikusiko dugunez, zenbait lanetan garbiri azaldu da (19) adibideen arteko antzekotasuna nonahi aurkitzen dugula giza hizkuntzetan. Har dezagun, adibidez, Bybee eta bestek (1994) hainbat hizkuntza aztertu ondoan ateratzen duten ondorioa:

The majority of progressive forms in our database derive from expressions involving locative elements (cf. Blansitt 1975; Comrie 1976; Traugott 1978; Heine and Reh 1984). (...) The locative notion may be expressed either in the verbal auxiliary employed or in the use of postpositions indicating location – at , in , or on . The verbal auxiliary may derive from a specific postural verb, such as sit , stand , or lie , or it may express the notion of being in a location without reference to a specific posture but meaning only be at , stay , or, more specifically, live or reside . (...) The form of the main verb is usually nominal (cited as verbal noun or gerund), although serial constructions are attested.¹⁷

Izan ere, euskaraz aurkitzen dugun progresiboaren egitura sintaktikoak, hitzez hitz, Bybee eta bere lankideek aipatzen dituzten ezaugarri guztiak agertzen ditu:

(a) *lekua adierazteko adierazpenetik eratorria da*: bai *ari*, bai *ibili* eta bai *egon* aditza ere, lekuzko (edo moduzko) osagaiekin agertzen dira aruntki: *soloan ari, kalean ibili, hemen egon...*

(b) *lekua adierazten duen postposizioen erabilera egiten du*: gure progresibo hauek *-n* lekuzko postposizioa erabiltzen dute, menpeko perpausa perpaus nagusira lotzeko: [*emakumea [gizona laztantze]N ari da/dabil*].

(c) *aditz laguntzailea, egoera adierazten duen aditz batetik eratortzen da*: honen bitartez *ari*, *egon* edo *ibili* aditzek progresiboan egiten duten lana aipatzen dute.

¹⁷ “Gure datu baseko forma progresibo gehienak, elementu lokatiboak dituzten adierazpenetik eratorriak dira (...) Ideia lokatiboa, erabilitako aditz laguntzailean edo lekua adierazten duten postposizioen erabileran adieraz daiteke. Aditz laguntzailea, egoera adierazten duen aditz batetik erator daiteke (*jesarri, egon, etzan*), edo leku batean egotearen ideia adieraz dezake, egoera jakinik aipatu gabe, nonbait *egon* adieraziz bakarrik, edo berezikiago bizi (...) Aditz nagusiaren forma nominala izan ohi da (aditz-izen bezala edo gerundio bezala aipatua), nahiz eta egitura serialak ere aurkitzen diren.”

(d) *aditz nagusiaren forma nominalizazio bat da, hots, aditz-izen bat*: honen bitartez ekintza adierazten duen aditza aipatzen dute: [*emakumea [gizona laztanTZE]n ari da/dabil*].

Aspektu progresiboaren egitura lekuzko eredu sintaktikoa ageri ohi dela ikasi dugu orain artean. Hau erakusteak, baina, ez du berez azaltzen hori *zergatik* gertatzen den. Demirdache & Uribe-Etxebarriaren (1997) lanak ematen digu galdera honen erantzuna: hizkuntzak denborazko –hots, denboraren eta aspektuaren arteko– harremanak egituratu behar dituenean, espazio kokapenak itxuratzeke erabiltzen duen eredu berberaz baliatzen da. Bertan, *ari* progresiboaren egitura aipatzen da honen erakusgarri, beste hizkuntza batzuetako adibideen artean. Liburu honetan, Uribe-Etxebarriaren “Denbora erlazioak eta hitz hurrenkera euskaraz” lana biltzen da, eta bertan argiro garaturik agertzen da ideia nagusi hau eta bai ideia honen hainbat ondorio ere; irakurlea bertara zuzendu nahi nuke, lan hau irakurritakoan, edo irakurri artean. Mateu & Amadas-en (1999) lanak ere, progresiboaren egitura lexiko-kontzeptuala lokatiboa dela, eta *egon* motako euskal progresiboaren perpaus nagusia perpaus iragangaitza dela ohartarazten dute. Progresiboaren egitura lexiko-kontzeptualak baldintzatzen du lantxo honetan aztergai dugun *ari* progresiboa, eta bai mendebaldeko progresibo formak ere, *ibili* edota *egon* aditzen bitartez erazten ditugunak. Era berean, hindian ematen den ustezko ergatibotasun zatitua azaltzeko, denbora harremanak itxuratzeko eredu honi zor zaiola argudiatu nahi dut: ez-perfektiboa egitura lexiko-kontzeptualean lokatibo (*non*) baten bitartez itxuratzen bada, ez da harritzekoa hizkuntza honetan perpaus lokatibo arruntak bezala jokatzeko perpaus ez-perfektiboak, eta beraz absolutibo kasuaz markatzea euren subjektua. Hindian, ergatibo markaren desagertzea ez da aspektu ez-perfektiboetan gertatzen bakarrik: etorkizunak, ez-perfektiboak bezalako ereduak agertzen du:

- (20) a. Sitaah vah ghar khariddegii.
Sita.FEM hori etxe.MASK eros.ETORK.FEM
Sitah etxe hori erosiko du.
- b. Sitaah ne vah ghar kharidaa thaa.
Sita.FEM ERG hori etxe.MASK eros.PERF.MASK zen.MASK
Sitah etxe hori erosi zuen.

(20a) adibidean, ez-perfektiboan ikusi dugun gertaera bera aurkitzen dugu: aditzaren inflexioak *Sitaah* osagaiarekin komunztadura egiten du, nahiz eta perfektiboan *vah ghar* gaiarekin egiten den komunztadura. (20a) adibidean ez da akusatiboaren marka agerikorik azaltzen, hau da, *vah ghar* etxe hori osagaiaren morfologia ez da aldatu. Proposamen honen arabera, hindiz bai perfektiboa eta bai etorkizuna ere, perpaus bi duen egitura baten bitartez itxuratzen dira, eta hortik eratortzen da kasu banaketaren aldaketa, euskaraz progresiboan bakarrik gertatzen dena.

6. Ez-perfektiboa: hindi eta euskararen arteko aldea zertan den

Erantzunetik beti galdera berriak dakartzate eskutik lotuta. Hindian ergatibotasun zatitu bezala deskribatu ohi den gertakarirako erantzun bat aurkeztu dugu: ez dago ergatibotasun zatiturik, hau da, (13a) eta (13b) arteko aldea –era berean (20a,b) arteko aldea– ez da eredu ergatibo batetik eredu nominatibo baterako aldaketa, eta adibide biak bateragarriak dira eredu ergatiboarekin. (13b)

adibidean gertatu dena ez da kasu ereduaren aldaketa bat, baizik eta, ez-perfektiboaren egitura lexiko-kontzeptuala lokatiboa izaki, horren ondorio naturala: perpaus iragangaitz lokatibo batean, beste perpaus bat agertzen da lekua adierazten duen osagaiari, eta honek denborarekiko kokapena adierazten digu, Demirdache & Uribe-Etxebarriaren (1997) izpirituari jarraiki. Lan honetan, perfektiboa eta progresiboa erkatzen dira, baina ez da ez-perfektiboaren egitura eztabaidatzen. Haatik, eta ez-perfektiboak erakusten dizkigun ezaugarriak kontuan izanik, egitura lexiko-kontzeptualean kokapen gisa egitura daitekeela proposatu nahi dut lan honetan, progresiboak egiten duen antzera. Hots, perpaus bi loturik agertzen dira hindiko ez-perfektiboetan, (13b) eta (14) itxuraketan erakusten dugun legez. Perpaus lokatiboak iragangaitzak dira, eta beraz, eredu ergatibo batean, absolutiboz markatzen dira, (12) zenbakiko eskemak erakutsi bezala. Erantzun honek, baina, irakurleak dagoeneko gogoan izango du, galdera bat sortzen du: zergatik ez dugu gauza bera aurkitzen euskarazko perpaus ez-perfektiboetan? Hau da, ez-perfektiboaren egitura lokatiboa baita, zergatik ez du euskarak, hindiak bezala, perpaus konplexu bat eratzen ez-perfektiboan, progresiboan egiten duen bezala?

Demirdache & Uribe-Etxebarriak (1997), eta bai Mateu & Amadas-ek (1999) ere, progresiboaren izaera lokatiboa defendatzean, euskaraz erakusten duen morfologia aipatzen dute: aditzak hartzen duen *-tzen* markari begiratzen badiogu, errazki ikusenez zati bitan bana daitekeela: aditzetatik izenak egiteko atzizkia agertzen zaigu, *-tze*, eta horri itsatsirik, *non* adierazten duen atzizkia, *-n*.¹⁸ Beraz, aditzaren morfologiak euskal ez-perfektiboaren izaera lokatiboaren aztarnak erakusten dizkigu. Bestetik, Alcázar (2002) euskal aspektuari buruzko lanak erakusten digun legez, *-tzen* aspektu marka hau anbiguoak izan ohi da irakurketa perfektiboaren eta progresiboaren artean, eta anbiguotasun hau beste hainbat hizkuntzatan ere aurkitzen dugu. Ostera, eta perpausaren egiturari begiratzen diogunean, perpaus bakun iragankor bezala jokatu du, aditza iragankorra denean. Beraz, egungo euskarari, ez-perfektiboetan agertzen den *-tzen* atzizkia ez da dagoeneko aditz nominalizazioak egiteko *-tze* eta lokatiboa den *-n* atzizkien konposizioa, baizik eta aspektu morfema bakarra, bere lehenagoko izaeraren aztarnak gordetzen baditu ere. Bestela esanda, *gramatikalizatze* bat gertatu da, zeinaren ondorioz, morfema bi zirenak (bata aditza izen bihurtzen duena, eta bestea lekua adierazten duena), morfema bakar bat bilakatu diren, *aspektu buru*, alegia, Lakaren (1990) lanean argudiatu nuen bezala. Ostera, progresiboetan, *tze+n* egitura daukagu, hots, egiazki hiztunen jakintza sisteman nominalizazioa gehi kokapena adierazten dute morfema biok –Levin (1983), Hualde & Ortiz de Urbina (1987). Ondoan erakusten dugu bien arteko bereizkuntza:

- (21) a. [Itsasoak hondarra [[bera_A]-tu_{ASP}] du]
 b. [Itsasoak hondarra [[bera_A]-tzen_{ASP}] du]
 c. [Itsasoa [PRO hondarra bera_A]-tze₁]-n_p] ari da]

Beraz, egungo euskararen egitura sintaktikoan, ez-perfektiboa adierazten duen *-tzen* elementua *aspektu* kategoriako elementua da, *-tu* den bezalakoa. Batek esanahi ez-burutua garraiatzen du, eta besteak esanahi burutua.¹⁹ Sintaxian bederen, egitura lokatiboa erakusten duen bakarra progresiboa

¹⁸ Artiagotziaren (1992) lanean, euskal ez-perfektiboaren zatiketa morfologiko honen alde egiten da, eta ez-perfektiboa PS bat dela defendatuaz. Lan honetan, jatorri horretatik *-tzen* morfema deskonposaezina sortu dela proposatzen dugu, progresiboarekin duen aldea azaltzeko.

¹⁹ Ikus bedi Alcázar (2001) euskarazko aspektuaren azalpen garatuago baterako.

da, (21c) itxuraketan ikus daitekeenez. Hindi eta euskararen arteko aldea, bada, aspektuari eta kasuari dagokienez, horretan datza: euskaraz, ez-perfektiboaren morfologia *gramatikalizatu* edo *berregituratu* da, jatorrizko *tze+n* morfema katea, [_{PS} [_{IS}...tze]-n] egitura aldatuaz. Egun, *-tzen* atzizkia daukagu, [_{ASP} [_{AS} Aditz]-tzen] egituraren isla dena. Hindiaren kasuan, ez-perfektiboak egitura lokatibo/iragangaitza gordetzen du, eta euskal progresiboak bezala, absolutibo bi ager daitezke: perpaus nagusikoa, eta menpeko perpausa iragankorra bada, bertakoa. Proposamen hau zuzena bada, hauxe dugu ergatibotasun zatituztat hartu izan den gertakariaren azalpena, eta azalpena egokia bada, ez legoke ergatibotasunaren zatitzerik honelako kasuetan.

7. Gramatikalizatzea edo berregituratzea gertatzen ari da: *ari* iragankorren kasua

Hindi eta euskararen ez-perfektiboek duten aldea hori dela areago zuztartzten du euskara barruan aurkitzen dugun beste gertakari batek. Dakigunez, nahiz eta gai honen inguruan deskribapen zehatzagoen beharrean gauden, *ari* aditza daramaten perpausak ez dira beti iragangaitz. Badira *ari* aditzaren erabilera iragankorrak. Goazen horiek aztertzer aurreratu, ezagunenak lehenengo eta hain ezagunak ez direnak bigarren. Jakina da, eguraldiari buruzko progresiboak egitean, *ari* aditza perpaus iragankorren buru agertzen zaigula. Hona *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioena *ari* aditzari buruz: “Se construye con auxiliar intransitivo, excepto cuando se trata de ciertos fenómenos naturales o atmosféricos”. Hona horren adibideak:

- (22) a. Euria ari du.
b. Hotz handia ari zuen.

Eguraldi gertaerekin aurkitzen dugun erabilera iragankor hau, dirudienez, oso zabalduta dago, nahiz eta jakin beharko genukeen non egiten den eta non ez, bai eta, non bietara egin dezaketen ere.²⁰ (22a, b) adibideek erakusten duten erabilera iragankor hauetan, *ari* aditzak argumentu edo partaide bi hartzen ditu zuzenean: *egilea* eta *gaia*, eta bakoitzari kasu bat banatzen zaio, ergatiboa eta absolutiboa hurrenez hurren. Beraz, eguraldi gertaerak adierazten dituzten perpaus hauek, perpaus iragankorrek ditugu:

- (23) a. pro_{ERG} euria_{ABS} ari du
b. pro_{ERG} [hotz handia]_{ABS} ari zuen

²⁰ Erabilera iragankorretik aldentzen diren kasuez hitz egitean, salbuespen gisa, *OEHN* Leizarragaren adibide bat, “Ezen hotz ari zen” eta Juan Bautista Agirreren beste bat “elurra ugari ari danean” aipatzen zaizkigu. Ondoren, argibide hauek eskaintzen dira: “En el s. xx prácticamente todos los autores guipuzcoanos usan *ari du*; igual sucede con los navarros F. Irigaray e Izeta. En el Norte, lo usual en este siglo es *da*; Iratzeder y Barbier alternan las dos construcciones.” Erabilera iragangaitz hauek, egitura iragangaitzetatik sortuak dira, hau da, ez dago erabilera hauetan (18) itxurapenean agertzen den *pro* ekoizlerik. Dena den, errepikatu beharra dago deskribapen finagoak beharko ditugula kasu hauen azterketa behar bezala zuztartzeko.

(23) adibideetan eskaintzen dugun itxurapenak argitzen duenez, ez dago perpaus horietan *eguraldi aditzik*; perpausaren aditza *ari* da, oraingoa ekoizpen esanahia hartzen duena. Partaide bi daude, hots, *ekoizlea* edo *egilea*, (23) adibideetan *pro* izenordain isilaren bitartez itxuratzen dena, eta *ekoitzia* edo *gaia*, gure adibideetan *euria* eta *hotz handia* direnak.²¹ Perpaus iragankorretan ohi den bezala, *egileak* kasu ergatiboa edo nork kasua hartzen du, eta *gaiak* kasu absolutiboa edo nor kasua. Har dezagun hurrengo, *ari*-ren beste erabilera iragankorra. Berriz ere *Orotariko Euskal Hiztegia* iturri hartuaz: “En el resto de los casos, *ari* con auxiliar transitivo es, al parecer, un fenómeno moderno, que sólo podemos documentar desde la 2ª mitad del s. XIX, si bien con ejs. en casi todos los autores bajo-navarros y labortanos de la época...” Ikus ditzagun erabilera iragankor honen adibide batzuk (ortografia gaurkoturik):

- (24) a. Ezpatak eta goseak xahutzen ari gaitu. (Duvoisin)
 b. Pilota ere uzten ari du gazteriak. (J.P. Arbelbide)
 c. Xorta-xorta biltzen ari dudan ezti-ura. (Joannateguy)
 d. Zorionaren bizitasunak itotzen ari nau. (Laphitz)

Perpaus hauek progresiboak dira; hau da, esanahiari dagokionez, zabalduagoa dagoen erabilera iragangaitzaren kideak dira. Haatik, egitura sintaktikoari dagokionez, ezberdinak ditugu. Zertan datza ezberdintasuna? Hona nire ustetan gertatu dena: (24) bezalako *ari*-ren erabileran, erabilera iragangaitzarekin erkatzen badugu, *berregituratze* edo *gramatikalizatze* bat gertatu da, *ari* elementuari dagokion berregituratzea alegia: *aditz izatetik*, *aspektu marka* izatera igaro da. (24) perpausetan, *xahutu*, *utzi*, *bildu* eta *ito* ditugu perpausaren aditz bakarrak, ez dago beste aditzik. Horrela, perpaus bakunak ditugu, aditz iragankorrekin eratuak, eta ondorioz, kasu markek iragankortasun hori islatzen dute:

- (25) a. [_{ERG} Ezpatak eta goseak] [_{ABS} pro(gu)] [_A xahu] [_{ASP} -tzen ari] [_{FLEX} gaitu]
 b. [_{ABS} Pilota] ere [_A uz] [_{ASP} -ten ari] [_{FLEX} du] [_{ERG} gazteriak]
 c. [_{ERG} pro(nik)] [_{ABS} (ezti-ura)] xorta-xorta [_A bil] [_{ASP} -tzen ari] [_{FLEX} duda]-n ezti-ura
 d. [_{ERG} Zorionaren bizitasunak] [_{ABS} pro(ni)] [_A ito][_{ASP} -tzen ari] [_{FLEX} nau]

Erabilera iragankorra egiten duten hiztunen jakintza sisteman edo gramatikan, *ari* hitzaren izaera sintaktikoa aldatu egin da aditz izatetik aspektu izatera. OEHak dioskunez, gertakari arras berria da hau, eta lehenago, erabilera iragangaitza zen nagusi, euskalki hauetan bertan. Hizkuntzaren elementu batek honelako kategoria aldaketa egiteari *gamatikalizatzea* deritzo, eta hizkuntza aldaketaren eragile nagusietako bat dugu. Gramatikalizatzeak, batik bat, talde lexikokoa den kategoria bat talde funtzionaleko kategoria bihurtzen du, eta horixe litzateke Nafarroa Behereko eta Lapurdiko erabileretan aurkitzen dugun *ari*-iragankorrean gertatu dena.²²

²¹ Ohar bedi arrunta dela giza hizkuntzetan eguraldi gertaerak ekintza bezala kontzeptualizatzea, eta ekintza horien egilea, perpausaren egitura eragina duen arren, isilpeturik gelditzea. Gaztelaniaz ere, ahoskatzen ez den subjektu bat daukate eguraldi aditzekin eraturako perpausak: [*pro* llueve]. Honengatik, egile hauei *quasi-argumentuak* edo *sasi-argumentuak* deritze (Chomsky 1986).

²² Talde lexikoko kategoriak, Izena, Aditza, Adjektiboa eta agian Postposizioa ditugu; talde funtzionaleko kategorien artean, Inflexioa, Konplementatzailea, Determinatzailea, Aspektua eta beste hainbat badira. Ikus bedi Artiagoitia (2001) bereizkuntza nagusi honi buruzko argitasunak jasotzeko.

8. Ondorioak laburbilduz: euskarazko kasu markak rol tematikoen ikurra dira

Euskara barruan, *ari* progresiboaren erabileran eredu bi aurkitzen ditugu beraz: batean *ari* aditza da, eta bestean *aspektua*. Bigarren ereduaren lehenengotik eratorria da, gramatikalizatzeko baten ondorioz. Era berean, eta euskarazko ez-perfektibo arruntak duen itxura morfologikoa ikusita, badirudi antzeko aldaketa eman izan dela hizkuntzaren historian zehar: ez-perfektiboaren egitura sintaktikoa perpaus lokatiboen egitura bera zen eta, gramatikalizatzeko ondoren, *tze+n* morfema hurrenkera gramatikalizatu egin zen *-tzen* aspektu burua sortuz. Ondorioz, euskal perfektiboa iragankor bihurtu zen.²³ Hindian, eta aspektuak eragindako ergatibotasunaren zatiketa erakusten duten hizkuntzetan agian, ez-perfektiboak oraindik gordetzen du bere egitura lokatiboa, eta beraz, perpaus iragangaitz baten kasu ereduaren erakusten du:

- | | | |
|---------|---|------------------------------|
| (26) a. | Jonek ogia jaten du. | perpaus iragankorra |
| b. | Raam _i [PRO _i roTii khaataa] thaa. | perpaus nagusia iragangaitza |
| c. | Jon _i [PRO _i ogia jaten] ari da/dago/dabil. | perpaus nagusia iragangaitza |
| d. | Jonek ogia jaten ari du. | perpaus iragankorra |

Bestetik, euskara barnean ere, (26a) eta (26b) adibideen artean dagoen aldearen pareko aldaketa bat bada, (26c) eta (26d) adibideetan erakusten duguna, alegia. Bertan, eta *ari* ale lexikoaren kategoria aldatzearen ondorioz, perpaus konplexu iragangaitz batetik (26c), perpaus bakun iragankor baterako aldaketa eman da (26d). Hemen aurkezturikoa zuzena bada, badira bertatik eratorzen diren beste zenbait ondorio; bereziki, eta euskararen kasu marken azalbideari dagokion bat azpimarratzearen, *ari* progresiboak lanaren atarian aurkezten zigun arazoa aipatu nahi nuke. Datuei lehenengo begiratu ematean, *ari* progresibo arruntean *egilea* den aditzaren argumentu batek nor edo absolutibo kasua hartzen duela ematen du (27b):

- | | |
|---------|-----------------------------------|
| (27) a. | Itsasoak hondarra beratzen du. |
| | EGILEA GAIA |
| b. | Itsasoa hondarra beratzen ari da. |
| | EGILEA GAIA |

Baina, ikusi dugunez, (27b) perpausa ez da perpaus bakuna; hots, perpaus horren aditz nagusia ez da *beratu* aditza. Ostera, (27b) perpausaren egituraren aditz bi daude, eta aditz bakoitzak bere rol tematikoen banaketa egiten du:

- | | |
|---------|--|
| (28) a. | [_p Itsasoa _i [_p PRO _i hondarra beratzen] ari da. |
| | GAIA EGILEA GAIA |

Batetik, *beratu* aditzak, ekintza izaki, *gaia* den partaide bat hartzen du, kasu honetan *hondarra* osagaia, eta *egilea* den beste partaidea. Egile hori, baina, ez da perpaus nagusiko *itsasoa* osagaia, baizik eta menpeko perpausaren PRO kategoria isila. Ondorioz, perpaus nagusian agertzen den

²³ Ohar bedi ez-perfektiboa iragankor bihurtu zela esaten dugunean, aditz iragankorrekin eratzen duen kasua dugula gogoan. Aditz iragangaitzekin eratutako ez-perfektiboek bilakaera bera izan dute, noski, baina horietan ez dugu ageriko kasu aldaketarik ikusten: *umea erortzen da* bezalako perpaus batean, *umea* osagaiaren kasua *absolutiboa* izango litzateke perpausa konplexua balitz ere.

itsasoa osagaia ez da *beratu* aditzaren egilea. Izan ere, *itsasoa* osagaia *ari* aditzaren partaidea da, eta *ari* aditza, *ez-akusatibo* deritzon motako aditz iragangaitza da, hots, *gaia* hartzen duen aditz iragangaitz mota, (28) itxurapenean adierazten den bezala. Hau honela izaki, *ari* progresiboetan ez litzateke absolutiboa edo nor kasuaz markaturik agertzen den *egilerik* egongo, eta absolutiboan agertzen zaigun osagai hori *gaia* dela ondoriozta dezakegu. Beraz, eta beste salbuespenik aurkitzen ez dugun artean, artikulua atarian euskarazko kasu markek nola jokutzen duten azaltzeko aurkeztu dugun lehenengo hipotesia, hipotesirik soilena, mantentzeko: *euskarazko kasu markak rol tematikoen ikurrak dira: ergatiboak egilea markatzen du, eta absolutiboak gaia*. Hipotesi hau, Levin-en (1983) lanean proposaturik agertzen da nik dakidala lehenbizikoz; bertan, Levin-ek argudiatzen zuen euskaraz kasu markak rol tematikoak banatzen diren egitura sakoneko kokagunetara bertan ezartzen zirela, eta hemen ikusi berri dugunez, *ari* progresiboa ez da horretan salbuespen bat.²⁴

Azkeneko urteetan, Holmer-en (1999) lanean ere antzeko zerbait proposatzen da, euskararen kasu sistemari buruzko eztabaida bikain baten ondotik; ergatiboa eta absolutiboa rol tematikoen ikurrak direla defendatzen du egileak, salbuespen bakar batekin: hain zuzen ere, *ari* progresiboaren kasua, Holmer-ek (1999: 199) onartu egiten baitu egitura hauetan egileak absolutiboa jasotzen duela: “Thus, the use of *ari* results in the prevention of ERG being assigned to the Agent, ABS being assigned instead.”²⁵ Progresiboak euskaraz perpaus biren bitartez osatuta badaude, baina, ez legoke Levin-en hipotesiaren kontrako salbuespenik. Euskarazko kasu markek, bestalde, jakina denez, aditzaren jokatusunarekiko erakusten duten axolakabetasuna ez dator bat egiturazko kasua duten hizkuntzetan jokatusunak duen garrantziarekin.²⁶ Euskarazko perpaus jokatu gabeek erakusten duten portaera *berezi* hau –berezia egiturazko kasuaren ikuspegitik– hainbat lanetan azpimarratu izan da (Levin 1983, Ortiz de Urbina 1988a, Zabala & Odriozola 1996, Holmer 1999, Elordieta 2001), eta Holmer-ek argiro azaltzen duen bezala, kasu markek jokatusunarekin erakusten duten disoziazio oso honek, egiturazko kasua ez dela erakutsiko liguke. Bestetik, ergatiboa *egile* rol tematikoaren marka bada, eta absolutiboa *gaiarena*, aditz *ez-ergatibo* iragangaitzen arazo zaharrak, hots, *irakin* eta *funtzionatu* bezalako aditzek erakusten duten markatze ergatiboak azalpen zuzena aurkitzen du, ergatibo kasuak egiletasuna markatzen duelako, eta ez, Lakaren (1993) lanean argudiatzen zen legez, egitura iragankor baten bigarrèn argumentua.

Aipamenak

Albizu, Pablo. 1995. “A Distributed Morphology-Based Approach to Ergative Displacement in Basque”, *V Colloquium on Generative Grammar*, Universidade A Coruña.

²⁴ Ohar bedi 4. oharrean, progresiboaren aurkezpenean, Levin-en hipotesiari sortzen zion arazoa eztabaidatzean, Levin-en hipotesi hau aipatu dugula.

²⁵ “Beraz, *ari*-ren erabilerak, Egileari ERG ezartzea oztopatzen du, eta horren ordez ABS ezartzen da.”

²⁶ Jakina da hizkuntza akusatibo arruntetan, eta hizkuntza ergatibo askotan (georgiera adibidez), nominatiboak eta absolutiboak jokatusuna behar dutela agertu ahal izateko –Artiagoitia (2001), Chomsky (1986).

- Albizu, Pablo & Luis Eguren 2000. "Ergative Displacement in Basque". In W.U. Drexler et alii (arg.), *Morphological Analysis in Comparison*, Current Issues in Linguistic Theory 201. Amsterdam: John Benjamins. 1-25
- Alcázar, Asier. 2002. *Aspectual Interpretation in Basque*. Master tesia, University of Southern California, Los Angeles.
- Alonso-Cortés, Angel. 2002. *Lingüística*. Madrid: Cátedra.
- Artiagoitia, Xabier. 2001. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Chomsky, Noam. 1986. *Knowledge of Language: Its Nature, Origins and Use*. New York: Praeger. [Gaztelaniarako itzulpena: Bustos, Eduardo. 1988. *Conocimiento del lenguaje*. Madrid: Alianza.]
- Bittner, Maria & Ken Hale 1996. "The Structural Determination of Case and Agreement". *Linguistic Inquiry* 27.1, 1-68.
- Bybee, John et alii. 1994. *The Evolution of Grammar: Tense, Aspect, and Modality in the Languages of the World*. Chicago-London: The University of Chicago Press.
- Demirdache, Hamida & Myriam Uribe-Etxebarria. 1997. "The Primitives of Temporal Relations". In R. Martin, D. Michael & J. Uriagereka (arg.), *Step by Step: Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge, Mass.: MIT Press. 157-186.
- Dixon, Robert M.W. 1994. *Ergativity*. Cambridge, Mass.: Cambridge University Press.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. "The Role of Verbal Agreement in Licensing Null Arguments". In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 113-132.
- Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko Kasuaren Eraketa Euskaraz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Fernández, Beatriz & Pablo Albizu. 2000. "Ergative Displacement in Basque and the Division of Labor between Morphology and Syntax". In J. Boyle & A. Okrent (arg.), *Chicago Linguistic Society 36, Volume 2: The Panels*. Chicago: Chicago Linguistic Society. 103-117.
- Holmer, Arthur. 1999. "An Active Analysis of Basque Ergativity". *Fontes Linguae Vasconum* 81, 189-225.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 1987. "Restructuring with ARI". *ASJU* 21, 425-452.
- Laka, Itziar. 1988. "Configurational Heads in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected Forms in Basque". *ASJU* 22, 343-365.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*. MIT Working Papers in Linguistics, Dissertation Series. Cambridge, Mass.: MITWPL. [Berrarg. in *ASJU* 25 (1991), 65-138.]
- Laka, Itziar. 1993. "Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative". In J. Bobaljik & C. Philips (arg.), *MITWPL 18: Papers on Case & Agreement 1*. Cambridge, Mass.: MITWPL. 149-172.
- Laka, Itziar. 1995. *A Brief Grammar of Euskara, the Basque Language*. Interneten eskuragarri, <http://www.ehu.es/grammar>.
- Laka, Itziar. 2000. "The blind Case: Burzio's Generalization and its Image in the Mirror". In E. Reuland (arg.), *Arguments and Case. Explaining Burzio's Generalization*. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company. 103-129.

- Laka, Itziar. 2002. "Delimitando la Gramática Universal: la ergatividad en la Gramática generativa". In N. Catalá, J.A. Díez & J.E. García-Albea (arg.), *El lenguaje y la mente humana*. Barcelona: Ariel Practicum. 77-142.
- Levin, Beth. 1983. *On the Nature of Ergativity*. Doktorego tesia, MIT, Cambridge, Mass.
- Mahajan, Anoop. 1990. *The A/A Distinction and Movement Theory*. Doktorego tesia, MIT, Cambridge, Mass.
- Manning, Christopher D. 1996. *Ergativity. Argument Structure and Grammatical Relations*. Stanford: CSLI Publications.
- Mateu, Jaume & Laia Amadas. 1999. "Extended Argument Structure: Progressive as Unaccusative". *Catalan Working Papers in Linguistics*, 159-174.
- Ormazabal, Javier. 2000. "A Conspiracy Theory of Case and Agreement". In R. Martin et alii (arg.), *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik*. Cambridge, Mass.: MIT Press. 235-260.
- Ortiz de Urbina, Jon 1988a. "Kasu ezarketa eta ergatibitatea euskaraz". In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi Arazoak*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzuak. 35-48.
- Ortiz de Urbina, Jon 1988b. "Perpau ez-tenporalizatuak". In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi Arazoak*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 49-64.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Studies in Generative Grammar 33. Dordrecht: Foris.
- Pinker, Steven. 1994. *The Language Instinct. How the Mind Created Language*. New York: William Morrow. [Gaztelaniarako itzulpena: Igoa González, José Manuel. 1995. *El instinto del lenguaje: cómo crea el lenguaje la mente*. Madrid: Alianza.]
- Postal, Paul M. 1977. "Antipassive in French". *Linguisticae Investigationes* 1, 333-74.
- San Martin, Itziar. 2004. "PROren banaketa eta Kasua". In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 133-148.
- Uribe-Etxebarria, Myriam. 2004. "Denbora erlazioak eta hitz-hurrenkera euskaraz". In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 149-175.
- Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola. 1996. "On the Relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals". *Catalan Working Papers in Linguistics* 5.2, 231-281.

Hizkuntzalaritza Orokorra
 Espainiar Filologia Saila
 Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
 EHU
 Unibertsitateko ibilbidea, 5
 01006 Gasteiz

feplamui@vc.ehu.es